

ERMUA. Santixauak agurtu artean, makina bat ekitaldigaz gozetako aukerea izango dabe

Jai egun gogorrenak martxan

Txarangak lagun, atzo udaletxeko balkoitik botatako txupinazoagaz hasi zituen jaiak



Umeendako jolas parkea egokituko dabe San Pelaion, aurton, lehenengo biderrez.

Aitziber Basauri

Aspaldi somau dabe santixauen etorrerea Ermuan. Halandabe, atzo, sartu ziran jai giroan barrena. Ohitureak dinoana jarraituta, plazan alkartu ziran txarangak, eta udaletxeko balkoitik jaien iragarlea dan txupinazoa bota eben. Ostein, urteroko kalejirea abiatu eben herriko kaleetan zehar.

Halantxe abiatu ditue santixauetako egunik «gogorrenak» Ermuan, Jai Batzordetik azaldu dabenez. Zapatuan agurtuko dabez santixauak. San Pelaioko futbol zelaitik suak botako ditue, eta txarangek Orbe Kardenala plazara arteko kalejirea

egingo dabe. *Agur Jaunak* abes-tuta, eta txapligo hots artean, agurtuko ditue jaiak. Halandabe, ordura artean makina bat ekitaldi izango ditue, Ermuan.

Umeendako jolas parkea

Jai egitaruan ekitaldi barriak sartzeko aukerea be izan dabe, aurton. «Datozan egunotan ekitaldi barriak sartzea gatx izaten da. Izan be, guztiz sustartuta dagozan ekitaldiak dira nagusi. Halandabe, aurton, lehenengo biderrez umeendako parkea egokituko da, San Pelaion. Era berean, kale ikuskizun bi izango dira», dino Jai Batzordeak. Markeliñek *D.S.O* obrea eskainiko dau, gaur; bihar, barriz, *Girobira*

aurkeztuko dau Gaitzerdi antzerki taldeak.

Santixauetarako gertautako ekitaldietan herritaren parte hartzea «benetan ona» dala di-noe. «Bakotxak bat edo beste izan ohi dau gustoko. Halandabe, paella lehiaketak, aurreku herrikoiak eta dantza solteko txapelketeak harrera on-ona izaten dau».

Herri-kirol erakustaldia eta profesionalen arteko esku pelota partiduak be nabarmendu ditue. Besteak beste, Titin III.a-Zezeaga bikoak jardungo dau Goñi II.a-Goñi III.aren aurka. Herri kirolean, barriz, Iñaki eta Inaxio Perurena, Kepa Atutxa eta Zelai-luze izango dira.

EKITALDI NAGUSIAK

GAUR

05:00-07:00: Rallye orkestreak girotuko dau gaupasea. Txistularien dianea, 07:30ean

08:00: Bigantxak Beti-Ondoko zezen-plazan. Bihar eta etzi be izango dira.

11:30-13:30/16:30-19:30: Umeendako parkea San Pelaion. Bihar eta etzi be bai.

12:30: Herri Kirolak, Orbe Kardenala plazan.

17:00: Profesionalen arteko esku-pelota partiduak, Aritzemendi pelotalekuan.

20:00: Euskerearen aldeko konpromisoa agerrarazteko topea, Orbe Kardenala plazan.

22:30: Markeliñek 'D.S.O.' ikuskizuna eskainiko dau, San Pelaio parkean.

23:00: Talisman taldeagaz dantzaldia, plazan. Madrilgo Sin Dios eta Ermuko hainbat rock talde, Valdespina Markesaren parkean.

BIHAR

05:00-07:00: Dj jaialdia. Zapatuan be bai.

12:00: Nagusiei omenaldia, Orbe Kardenala plazan. Nagusiendako bazkaria, 14:00etan, Aritzemendi pelotalekuan.

22:30: Gaitzerdi taldeak 'Girobira' ikuskizuna eskainiko dau, San Pelaio plazan.

23:00: Plazan, dantzaldia Escala 2000 orkestreagaz. Marsellako ETHS eta Ermuko hainbat taldeagaz kontzertua Valdespinako Markesaren parkean.

ZAPATUA

10:00-11:30: Valdespinako Markesaren parkean, Ermuko Merkatarik Alkarteak arroza bananduko dau; eta Merkatu Plazako Merkatarik Alkarteak sardinak, merkaturako lehen solairuan. Ostein, paella lehiaketak.

13:00: Herri bazkaria.

17:00: Herri-aurrekuak eta herri mailako jota lehiaketak, Orbe Kardenala plazan

22:00: Erromeria Izotz taldeagaz, plazan.

BERRIZ

Sahararen aldeko jaialdia egingo dabe gaur Elizondon

A. B.

Saharagaz eroandako udal-koperazioaren barruan, Berrizko Udalak, beste 17 udalerrigaz batera, 20.000 litroko bolumena daukien zisterna-kamioi bi erosten lagundu dau. Horixe azaldu dau Kooperazino Zerbitzuak. Proiektu hori Euskal Fondeoak eta Saharako Errepublikako Arabiar Demokratikoaren Lagunen Elkartea erakundeek eratu dabe alkarlanean. Halandabe, kamioiak moldatu eta Tinduf-era eroan artean, kooperatu daben udal-erriek kanpaina mogikorra antolatu dabe.

Ekitaldiak gertatu ditue

Herritarrek proiektua eza-gutu daien, jaialdia antolatu dabe gaurko, Berrizen; eta hainbat ekitaldi antolatu dabez. Guztiak Elizondo plazan batuko dira. Zisterna-kamioien erakusketea izango da; era berean, *Herri saharaiarraren errealidadea* argazki erakusketea be gertatu dabe. Haima bat be jarriko dabe, eta bertan tea dastetako aukerea izateaz ganera, makilak eta arropa tailerrak be izango dira.

Gaztetxoendako, jokuak eta puzgarriak jarriko dabez, eta txokolatadea be gertatu dabe.

DURANGO. Andra Mari eleizpean eskainiko dabe saioa, 22:30ean

Tactequete taldeagaz agurtuko dabe 'Uda kalean bizi'



Tactequete perkusino taldeak eskainitako saioagaz agurtuko dabe, gaur, *Uda kalean bizi* egitaraua. San Agustin Kultur Gunea bultzatutako ekimenagaz, uda partean arte eszenikoak kalean bultzatzea izan dabe helburu nagusia, eta gaurko ekitaldiagaz emongo deusie amaierea. Andra Mari eleizpean eskainiko dau emonaldia Tactequete taldeak, 22:30ean.

Elementu latinoak eta afrikarrak dira nagusi Tactequetek landutako musikan. Halandabe, jazzari jagokozan moldeak be sartzen dabez. Musika tresna ugari jotzen dabezan sei musikok osatzen dabe Tactequete perkusino taldea.

AGENDEA

ZORNOTZA

Aitita eta amamen eguna: Mezea izango dabe Andra Mari eleizan. Ostein, barriz, bazkaria gertatu dabe euren doko. Horrezaz ganera, erromeria be izango dabe Auskalo taldeagaz. Nafarroa Zentroan izango dira ekitaldiak.

Azokea: II. Baserritarren Azokea, Zubiondo plazan, goizean. Zornotzako trikitilari taldeen kalejirea eta emonaldia be egongo da.

Lehiaketak: Uso-tiroaren herriko txapelketa soziala, Jauregibarrian 10:00etan.

Pelotea: ASPE enpresaren pelotari profesionalen esku-pelota partidak, Amorebieta IV.a pelotalekuan, arratsaldeko 17:30ean.

Herri-kirolak: Koadrilaren arteko herri-kirol txapelketa, Zelaieta Parkean 18:00etan.

Erromeria: Imuntzo eta Beloki, Zubiondo plazan 21:30ean.

Suak: Su artifizialak Astondoa

pirotekniaren eskutik, Jauregibarrian 22:30ean.

DURANGO

Erakusketea: Bingen De Pedrorren 'Bajo Cielo' margo erakusketea ikusi leiteke Arte eta Historia Museon. Datorren hilaren 31ra artean izango dabe zabalik erakusketea, museoko arduradunek.

ATXONDO

Musikak: Goizean meza nagusia, eta, jarraian, dantzarien saioa. Egun osoan, Saltsa Maltza taldeak alaituko dau giroa.

Lehiaketak: Mus eta briska txapelketearen finalak 12:30ean. Igel txapelketa, 17:30ean.

Herri Kirolak: Herri-kirol saioa hasiko da, 19:00etan.

IURRETA

Lehiaketak: Samigeletarako kartel lehiaketan parte hartu gura dauenak abuztuaren 20ra artean dauka epea. Irabazleak 475 euroko saria jasoko dau.